

- **Kostu egitura**

Hasieran inbertsio bat egin beharko dugu proiektuarekin hasteko. Xaboiak ekoizteko makineria eta tresneria erosi behar dugu. Auto elektrikoa erostea erabaki dugu, ingurumenarekin bat eginez. Kostu baxuenekoa erabaki dugu erostea (Citroen C-Zero), 19.690€ balio duena, hasiera batean sarrerek ez ditugulako edukiko. Bestalde, web orria sortzeko ordenagailua erosiko dugu ere; 1.000€-ko ordainketa bakarra eskatzen duena.

Kostu finkoetan langileen kostuak, lau langile izango gara denak bazkideak kooperatiba bat garelako. Bakoitzaren soldata 1000€ izango da. Administrazio lanak gestoria baten esku utziko ditugu eta hauen kostua ere finkoa izango da.

Lokal bat alokatuko dugu gure produktua ekoizteko eta honen alokairua 1000€ izango da hilero. Kostu hau nahiz lokalaren aseguruua kostu finkoak izango dira. Hornidurak (Telefonoa, Wi-Fia....) ere kostu finkoen barruan sartuko ditugu. Kostu aldakorren artean, lehengaiak: sosa, esentzia naturalak(aloe vera, erromeroa...) eta eraikinaren elektrizitatea.